

VILLABONA

Urtekaria 2001
Hernani-Tolosa

(Aurreko orritik dator)

rri barruan dugu eta hara atera nahi dugu, baina oraindik akordiorik ez dugu itxi.

Horrez gain, Tolosaldeko Apatta erreka industrialdean ere sartuta gaude. Denak dira aurrera eraman beharreko egitasmoak. Gaur egungo egoerarekin erkatuz proportzioan industria asko zegoen garai batean Villabonan. Gogoan izan behar da Graficas Laga enpresa ere erre egin zela. Lanpostuak mantentzen saiatuko dira eta tasa aldetik laguntzen saiatuko gara.

■ **Eta kultura mailan zer egin da Villabonan?**

Kultur Etxea daukagu eta 220 ikasleko musika eskola dago bertan. *Oinkari* dantza taldeak ere 25. urteurrena ospatu berri du. *Gurea* zinema ere badugu. Liburutegia handitu beharra ikusten dugu, baina horretarako euskaltegia atera beharko genuke bere tokitik. Subijana lantegia ere kulturarako erabilgarri jarri nahi dugu eta bailarako musika eskola bertan jarri. Jubilatua, beren aldetik, eskean ditugu. Bi aukera horiek ditugu. Horrez gain, Euskal Herriko txistularien batzarra ospatu da aurten herrian. Gazteak ere lokal eske daukagu, baina inork ez du ardura hartu nahi.

■ **Zel in dira hezkuntza eta eskola aldetik herrian somatzen diren arazoak?**

Helduen Hezkuntza Eskola han-

ditu behar da. Udaletxean obrak egiteko asmoak ere baditugu. Goiko artxiboa, esaterako, behar, gaur egun zerbitzuak dau-den tokira, pasa behar dugu.

Helduen Eskolakoak euskaltegira pasako genituzke eta bere lokala udaletxea handitzeko hartuko genuke. Bestalde, Arroako eskola publikoa handitu egin dugu. Arratzaingo eskolatan ere arazoak somatzen ditugu. Ikastola bi lekutan banatuta dago, Arratzainen eta eliza ondoan, eta Fleming zeneko lokala eskatzen ari zaizkigu. Denentzat lokalak izatea gustatuko litzaidake, baina ez da erreza horren erraza.

■ **Kirola aldetik zer berri duzue?**

Olaederra kiroldegia eta igerileku berria oso ondo daude bere instalakuntza eta ikastaroekin. Arratzain futbol zelaia ere hor dugu, baina taldeak aurrera eramateko jendea falta da. Zizurkilgo futbol zelaia berri-tzeko laguntza eskatu digute, baina zaila da hori aurrera ateratzea. Datorren urtean Euskal Herriko itzuliaren etapa bat hasi eta bukatuko da herrian. Aizkardi mendi taldea ere dezente mugitzen da.

■ **Bukatzeke, zerbait gehiago esan nahiko zenuke?**

Herrira gerturatu nahi dut, oso burokratizatuta gaude eta hori ez da batere ona herriarentzat. Gestoreak gara eta autonomia gutxi dugu. Beharrezkoa da herri-ritik gertu sentitu eta egotea arazoak ahalik eta egokien konpontzeko.

«Denentzat
lokalak izatea
gustatuko
litzaidake, baina
ez da erraza»



GALTZAUNDI

Seaska haur
eskolak 25 urte

Villabonako Seaska haur eskolak 25 urte bete ditu urrian. Lehen egoitza aurrezki kutxa zegoen lekua izan zuen, Katea etxe-ko solairuan. Helburu gisa, haurren sozializazioa, euskalduntzea eta gizarte zerbitzua izan zituzten. Amasa-Villabonako Udalaz gain, Zizurkilgoa ere haur eskola honetan partaide da. Eskolan ikasleak adinaren arabera banatzen dira.

Benantxi Eizagirre eta Nekane Lizarra dira hasieratik dauden haurtzaindegiko irakasleak. Hasieran auzolanean eraiki zuten eta etorkizunera begira zalantza handiekin. Katea etxea Foru Aldundiak utzi zien. Zazpi haurrekin hasi ziren eta apurka handitzen joan da. 1983 une kritikoa bizi zuten, baina aurrera atera ziren. Orain ume asko dituzte eta beste hainbeste zerrendan zain.

Seaskako langile eta gurasoek jaialdia ospatu zuten urriaren 20an Arratzaingo frontoian. Kalejira, argazki erakusketa eta bazkariarekin batera Txan magoaren emanaldia izan zuten.

Vicente
Errotuloak

**FRESAKETA - GRABAKETA
BINILOA - INPRESIO DIGITALA**

rotulosvicente@Jet.es
Laskibar bailara 25 • 943 690294
• Irura - Gipuzkoa • Faxa: 943 694291



JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA

*Gabon zoriontsuak guztioi eta urte
berriarekin urra ditzagula behar ditugun
pakearen bide berriak*

K/ Berria, 49 - Tel.: 943 69 23 21 - BILLABONA

Félix

ILEAPAINDEGIA

Aurrez ordua eskatu

Kale Berria, 23
BILLABONA - 943 69 18 24



AMASA-VILLABONAKO UDALA

HERRITARREN ZERBITZURA

Euskara Zerbitzua	943 69 35 01	Gazte Informazio Bulegoa	943 69 39 25	HHI-EPA	943 69 03 12
Udala	Faxa: 943 69 33 76	Euskaltegia	943 69 25 36	Olaederra Kiroldegia	943 69 43 22
Udaltzaingoa	943 69 39 80	Haur Eskola	943 69 20 29	Osasun Zentroa	943 69 07 16
Kultur Etxea	943 69 16 55	Ikastola	943 69 23 21	Larburu Farmazia	943 69 11 30
Liburutegia	943 69 32 24	Fleming Ikastetxea	943 69 14 13	M ^a Luisa F. Farmazia	943 69 09 78
Ongizate Zerbitzua	943 69 39 25	Erniobea Institutua	943 69 37 33	Pake Epaitegia	943 69 39 27